

UABko hizkuntza-plana

Eleaniztasunaren aldeko apustu estrategikoa

(2008ko uztailaren 17ko Gobernu Kontseiluko akordioa)

Aurkibidea

1. Sarrera	3
1.1. Xedea eta ikuspegia	3
1.2. Abiapuntua	3
1.3. Ideia nagusiak	3
2. Lan eremuak eta ildoak	5
2.1. Erakundearen eta kudeaketaren eremua	5
2.2. Irakaskuntzaren eremua	6
2.3. Harrera linguistikoaren eta kulturalaren eremua	6
2.4. Ikerkuntzaren eremua	7
3. Jarduerak	8
4. Ebaluazioa eta jarraipena	13
5. Garapena eta laguntza teknikoa	13

1. Sarrera

1.1. Xedea eta ikuspegia

Xedea

Hizkuntzen erabileraren, kalitatearen eta ezagutzaren esparruetan, ezagutzaren Europako guneak ekartzen dituen eleaniztasunaren kudeaketa-beharrei erantzutearen aldeko apustu konprometitua da UABko hizkuntza-politika.

Apustu hori zehatza da katalana, gaztelera eta ingelesa dagokien estatusarekin erabili ohi duen eta unibertsitateko komunitatearen gaitasun poliglota eta kulturantzuna bultzatzen duen unibertsitate eleaniztunaren ereduaren garapenean.

Ikuspegia

UABk honako hau izan nahi du:

- Eleaniztasuna bere nortasun ezaugarri nagusien artean eta antolakuntza-kulturan duen erakundea.
- Unibertsitateko komunitatearen hizkuntza-kapitala aitortzen eta baloratzen duen eta hori osatzen duten pertsonak askotariko hizkuntzak menperatzea bultzatzen duen erakundea.
- Tokiko eta nazioarteko erreferentea, unibertsitateko eleaniztasunaren kudeaketa-ereduaren eraikuntzan eta aplikazioan.

1.2. Abiapuntua

UABk katalanarekiko konpromiso soziala du, Kataluniako berezko hizkuntza bezala eta, gaztelerekin batera, ofiziala den hizkuntza bezala. Konpromiso hori lege esparruaren eta Unibertsitatearen bokazioaren ondorioa da. Orain, Unibertsitatearen nazioarteko proiektioaren eta campuseko eleaniztasunaren aldeko apustua egin nahi du.

Bi planteamendu horiek elkar sendotu behar dute: katalana eleaniztasuna bultzatuko duen esparruaren barnean bakarrik garatu daiteke; eleaniztasuna UABren¹ nortasun ezaugarrietatik ondorioztatatu behar da.

1.3. Ideia nagusiak

Hizkuntza-plana hiru ideia nagusietatik abiatuta artikulatzen da:

- a) Gradurako eta graduondorako eleaniztasun etorkizunaren definizioa,
- b) Ikasgelan askotariko hizkuntzak menperatzea sustatzea, eta informazio gardentasuna,
- c) eleaniztasunaren arauketa, erakunde arteko komunikazioetan.

¹ Dokumentu honetan, «poliglota» (*plurilingüe*) hitza pertsonen gaitasunei dagokie, eta «eleaniztuna» (*multilingüe*) erakunde batean aldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeari dagokio. Termino horien definizio zehatzagoa kontsulta daiteke Europako Kontseiluak egindako *Hizkuntzetarako Erreferentzia Marko Komun Europarra: ikasi, irakatsi, ebaluatu* (2002) dokumentuan.

Gradurako eta graduondorako eleaniztasun etorkizunaren definizioa

UABren nazioarteratze prozesuak eta GHEGak ezarritako esparruarekiko egokitzapenak gradu ikasketen tokia konfiguratzen dute, nagusiki, tokiko ikasleak hartzen dituzten irteera profesionalizatzaileekin (atzerriko ikasle kopuru handia erakartzen duten zenbait tituluren kasuan izan ezik). Halaber, ikasleen mugikortasuna ezaugarri garrantzitsu duten graduondoko ikasketen tokia ere egituratzen dute.

Esparru horretan, katalana erabilera nagusiko hizkuntza duen gradurako hizkuntza-etorkizuna zehaztu behar da. Etorkizun horretan, gaztelera eta ingelesak presente jarraituko dute, baina beste hizkuntza batzuk ere egongo dira. Graduondoari dagokionez, etorkizun dibertsifikatuagoa zehaztu behar da, ikasketa-eskaintza moten (master ofizialak, berezko graduondokoak; orientazio profesionalizatzailea, ikerkuntzakoak; nazioarteko/tokiko bokazioa duen eskaintza, etab.) eta kasu bakoitzaren espezifikazioen arabera. Kasu horretan, orokorrean, ingelesak eta gaztelera graduan baino presentzia garrantzitsuagoa izan beharko dute, nahiz eta euren rola aldagarria izan ezagutza-esparruaren arabera, eta katalana lurraldeari eta herrialdearen hezkuntza-, gizarte edo kultura-aberasketari oso lotutako eremuetan nagusi izaten jarraitzen duen bitartean.

Ikasgelan askotariko hizkuntzak menperatzea sustatzea eta informazio gardentasuna

Askotariko hizkuntzak menperatzea sustatu behar da ikasgelan, zehaztutako eleaniztasun etorkizunaren arabera, hainbat hizkuntza menperatzeko gai diren pertsonak trebatzeko, hori baita UABn ikasteak adierazi behar duen baloreetako bat. Esparru horretan, Unibertsitatearen hizkuntza-ereduaren informazio gardentasuna eta Unibertsitateko komunitatearen hizkuntza-eskubideak bermatu behar dira.

Eleaniztasunaren arauketa erakunde arteko komunikazioetan

Hizkuntza-erabileren konplexutasunak Unibertsitateak sortzen dituen erakunde arteko komunikazioetan katalana berezko hizkuntza eta katalana eta gaztelera hizkuntza ofizial bezala ezartzen dituen lege esparruaren garapena behar du (EAC, HPL, KUL, Unibertsitateko Estatutuak, etab.). Garapen horrek katalanaren eta gaztelararen erabilera-esparruak zehaztu beharko lituzke, lege esparruak aurreikusten ez dituen kasuetan, eta lege esparrua zehatzegia ez denean. Era berean, honako hauek ere hartu behar ditu barne: ingelesaren erabilera-esparruak erakunde eta lan hizkuntza bezala, Kataluniako eta Espainiako gainontzeko hizkuntzen estatusa (okzitaniera, euskara eta galiziera), UABren nazioarteko proiektiorako estrategikoak izan daitezkeen beste hizkuntzen erabilera-esparruak (frantsesa, mandarin-txinera, etab.) eta, unibertsitateko komunitatearen dibertsitateari aurre egiteko eta eskuragarritasun unibertsala bermatzeko, beste hizkuntza batzuen erabilera egokia izan daitezkeen esparruak (Kataluniako zeinu mintzaira; aipatutakoak ez diren unibertsitateko komunitatearen berezko hizkuntzak edo lehenengo hizkuntzak).

2. Lan esparruak eta ildoak

Hizkuntza-planaren helburu espezifikoak eta jarduerak, UABren hizkuntza-politikari buruzko esparru dokumentua, aplikazioko lau eremu handitan taldekatzen dira:

1. Erakundeen eta kudeaketaren esparrua
2. Irakaskuntzaren esparrua
3. Hizkuntza- eta kultura-harreraren esparrua
4. Ikerkuntzaren esparrua

2.1. Erakundeen eta kudeaketaren esparrua

Esparru horretako helburu espezifikoak honako hauek dira:

(1) Erakundeen arteko kanpo komunikazio ezberdinetan, hainbat esparrutan zer hizkuntza erabili behar diren zehaztu. Adibidez, UABko informazio eta sustapen dokumentuetan (gidak, hedapenerako orriak, merchandisinga, etab.): ingelesaren eta bestelako hizkuntza estrategikoen erabilera, UAB zabaldu nahi den eremuetarako. Dokumentu ofizialetan (ziurtagiri akademikoa, beste unibertsitate batean egindako egonaldiaren ziurtagiria, etab.): ingelesaren eta Kataluniako eta Espainiako hizkuntza ofizialen erabilera, katalanarekin batera, hizkuntza lehenetsi bezala.

(2) Katalana, gaztelera eta ingelesa ez diren beste hizkuntza batzuen erabilera zer esparrutan den egokia zehaztu, barne komunikazioetan, campuseko hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren arabera: segurtasunari eta pertsonen eskubideei buruzko mezuak; hala nola, eraikinaren autobabeserako eta ebaluaziorako protokoloa, eskola-aseguruaren informazioa, etab.

(3) Komunikazio instituzionalen hizkuntza-kalitatea bermatu, era iraunkorren.

(4) Informazio gardentasuna faboratu: unibertsitateko hizkuntza-politikarekin erlazionatutako ezarritako irizpideak jakinarazi, bide formalen bidez eta aldian behin.

(5) Adierazteko erabil ditzaketen eta irakasgai bakoitza jarraitu ahal izateko ulertu behar dituzten hizkuntzak jakinarazi ikasleei. Era berean, talde klase bakoitzeko irakaskuntzako hizkuntzei buruzko informazioa jakinarazi behar zaie ikasleei, «eleaniztasun eskalaren» arabera: ikasketan laguntzeko materialen hizkuntzak, ikasleek egiten dituzten lanen hizkuntzak, etab.

(6) Hizkuntzen ezagutza bultzatu, UABko langileen artean:

— Irakasleek eta administrazioko zein zerbitzuetako langileek gaztelera eta katalan maila nahikoa izan behar dute, lege esparruaren arabera.

— Irakasleek eta administrazioko zein zerbitzuetako langileek hizkuntza-gaitasun maila jakin bat izan behar dute ingelesez, lantokien profilen eta kasu bakoitzaren beharren edo espezifiktasunen arabera.

— Irakasleen eta administrazioko zein zerbitzuetako langileen hizkuntza askotariko gaitasuna antzeman ahal izan behar da.

2.2. Irakaskuntzaren eremua

Eremu horretako helburu espezifikoak honako hauek dira:

- (1) Katalaneko, gaztelerako eta ingeleseko irteera-maila zehaztu, gradu ikasketetarako. Masterretarako ingeleseko sarrera-maila eta graduotarako katalaneko eta gaztelerako irteera-maila zehaztuko den aztertu behar da.
- (2) Ikasleen curriculumean hizkuntza-gaitasunen ikaskuntza sartu, edukien eta hizkuntzaren integrazioaren eta hizkuntza-trebakuntza espezifikoaren bidez. Hizkuntza-gaitasun horien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek:
 - Hizkuntza-gaitasun komunikatiboak (ahozko eta idatzizko komunikazioa) katalanez eta gazteleraz, lanean eta ikasketetan erabiltzeko (ahozko azalpena, arrazoiketa, etab.).
 - Hizkuntza-gaitasun komunikatiboak (ahozko eta idatzizko komunikazioa) ingelesez, lanean eta ikasketetan erabiltzeko.
 - Ingelesa hizkuntza orokor bezala erabiltzeko gaitasuna, irteera-maila lortzeko konpentsazio bideak behar dituzten ikasleentzat.
 - Katalana eta gaztelera hizkuntza orokor bezala erabiltzeko gaitasuna, katalanez hitz egiten ez den lurraldeetako nazioarteko eta Espainiako ikasleentzat.
 - Ikasleak ingurune kulturantzunetan erlazionatzeko prestatuko dituzten kulturen arteko gaitasunak (enpresa-eremuan, erabiltzailearentzako edo bezeroentzako arretan, etab.).

Halaber, ikasleen zein irakasleen lan autonomia bultzatuko duten hizkuntza-baliabideen eta materialen prestaketa eta hedakuntza sustatu behar dira.

- (3) Hizkuntza-gaitasunen ebaluazio formala bultzatu.
- (4) Katalanaren erabilera sustatu graduoko eta graduondoko irakaskuntzan.
- (5) Edukia eta hizkuntza integratuta, irakaskuntzan hirugarren hizkuntzen ikasketa sartzan duten irakasleenganako laguntza bultzatu.
- (6) Ikasgelan hainbat hizkuntza hitz egitea sustatu: irakasgaiak linguistikoki dibertsifikatu.
- (7) Tokiko ikasleak etorritako herrialdeen hizkuntzetara eta kulturetara ohitu.

2.3. Hizkuntza- eta kultura-harreraren eremua

Esparru horretako helburu espezifikoak honako hauek dira:

- (1) Kanpoko ikasleei herrialdearen eta unibertsitate-eremuaren egoera soziolinguistikoa era eraginkorrean jakinarazi, UABra etorri aurretik eta jadanik iritsi direnean (jatorrizko unibertsitateekin komunikazioa, ongietorria emateko jardunaldiak, tailerrak, etab.).

(2) Etorri berri diren ikasleen artean Kataluniako kulturaren eta hizkuntzaren ezagutza bultzatu (ikasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak, eta irakaskuntzako eta ikerkuntzako langileak).

(3) Etxean nazioarteratzea bultzatuko duen ingurune eleaniztasuna faboratu (hizkuntza- eta kultura-harrera, trukeko eta erlazioko guneak, etab.).

2.4. Ikerkuntza-esparrua

Esparru horretako helburu espezifikoak honako hauek dira:

(1) Aldi berean hirugarren hizkuntzen eta katalanaren erabilera faboratuko duen dibulgazio zientifikoa sustatu.

(2) Ikerkuntzan eta argitalpenetan, katalanaren erabilera bultzatu.

(3) Katalanez eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako artikuluen berrikuspen linguistikoa lagundu, argitaratu aurretik.

(4) Ikerlanak atzerriko hizkuntzetan prestatzeko, idazteko eta komunikatzeko, irakasleei eta ikerleei zuzendutako trebakuntza-ekintzak sustatu.

(5) Hainbat hizkuntzatan, erreferentziazko materialen prestakuntza lagundu (hiztegi eta terminologia espezifiko eleaniztunak, erreferentziazko testuen itzulpenak, etab.).

3. Jarduerak

2008-2010 aldirako aurreikusitako jarduera nagusiak honako hauek dira:

Espar.	Helb.	Jard. kopurua	Jarduera	Urtea
Orok.	-	-	Hizkuntzarekin zerikusia duten zerbitzuetarako laguntza-ildoen politika berriro zehaztu, bereziki itzulpenen kasuetan, laguntza-ildo horiek Planaren helburuak lortzen laguntzeko	2008
Erakunde eta kudeaketa-esparrua				
1	1	1	Erakundeen arteko kanpo komunikazioetan, erabilera instituzionaleko irizpideen dokumentua izan	2008
1	2	2	Unibertsitate komunitateko hizkuntzei buruzko ikerketa egin	2009
1	2	3	Erakundeen arteko barne komunikazioetan, erabilera instituzionaleko irizpideen dokumentua izan	2009
1	3	4	Dokumentuen kalitate maila erabakitzeke baremoa ezarri, hainbat elementutik abiatuta: inpaktua, instituzionalitate maila, urgentzia, etab.	2008
1	3	5	UABn eta, bereziki, zentroetan ekoiztutako dokumentuen kalitatea bermatzeko aukera emango duen berrikuspen eta itzulpen sistema izan	2010
1	3	6	Erakundeetako testuen zuzenketa eta itzulpena lagundu	2008
1	4	7	Unibertsitatearen hizkuntza-politikari buruzko dibulgaziozko dokumentu publikoa izan, hizkuntza ezberdinetan (web orrian)	2008
1	4	8	Hizkuntza-politikako jarduerak zabaldu (intranetean, web orrian, mezu elektronikoetan), kanal sektorialetan eta Hizkuntza-planerako toki iraunkorrean	2008
1	5	9	Zentroeiei zuzentarauak eman, informazioa jaso eta eman dezaten	2008
1	5	10	Eleaniztasunaren eskala jasoko duen ereduia egin eta zabaldu	2009
1	6	11	Administrazioko eta zerbitzuetako langileen lantokiak linguistikoki zehaztu	2009
1	6	12	Ingeles maila ezarri, langileentzako baldintza orokor bezala	2010
1	6	13	AZLentzako ingelesez emandako trebakuntza-programa ezarri	2008-2009
1	6	14	Irakasleentzako eta ikerleentzako ingelesez emandako trebakuntza-programa ezarri	2008-2009
1	6	15	Beste hizkuntzen ezagutza meritu bezala eta beste hizkuntza batzuetan trebatzeko programa ezarri	2008-2009
1	6	16	Irakasleen hizkuntza-merituak aitortzeko aukerei buruzko txostena egin	2010
Irakaskuntzaren esparrua				
2	1	17	Ingelesezko irteera-maila zehaztu gradurako	2008-2009
2	1	18	Masterretarako sarrerako ingeles maila eta gradurako katalan eta gaztelera maila ezarri behar den zehaztu	2009
2	2	19	Ikaslearen curriculumean, hizkuntza-gaitasunen aitortpena formalizatu	2008-2009
2	2	20	Diru-laguntza politika gorde, unibertsitateko komunitaterako katalanezko trebakuntza-eskaintzarako	2008

2	3	21	Sartu berriak diren ikasleen artean, ingeles maila detektatzeko proben erabilera bultzatu eta, ahal izanez gero, baita gaztelerakoak eta katalanekoak ere	2009
2	3	22	Unibertsitateko ikasketak amaitzerakoan, hizkuntza horietan lortutako maila egiaztatzeko aukera emango duten ingeleseko eta, ahal izanez gero, beste hizkuntza batzuen ezagutzako proben erabilera bultzatu	2009
2	4	23	Gradurako katalanezko irakaskuntzaren etorkizuna zehaztu	2008-2009
2	4	24	Zentroekin eta sailekin egindako plangintza-hitzarmenetan, etorkizun hori helburu bezala sartu	2009
2	4, 6	25	Gradu eta master ofizialen irakaskuntzan, hizkuntza-erabilerei buruzko ikerketa egin	2009
2	5, 6	26	Edukiak eta hizkuntza integratuta, irakaskuntzan hirugarren hizkuntzak sartu nahi dituzten irakasleei trebakuntza eta laguntza-programak eskaini, eta ikasleen gaitasuna hainbat hizkuntzatan bultzatu	2008
2	5, 6	27	Ikasgelan eleaniztasuna kudeatzeko irizpideak edo jarribideak dituen irakasleei zuzendutako gida egin	2009
2	5, 6	28	Eleaniztasuna ikasgelan sartzan duten eta ikasleek askotariko hizkuntza-gaitasuna sustatzen duten irakasleentzako pizgarriak aztertzea eta aplikatzea	2010
2	6	29	Dokumentazio akademikoan eleaniztasuna errazteko, hizkuntza-teknologiako aplikazioen garapena eta erabilera sustatzea	2008
2	7	30	Tokiko ikasleei zuzendutako etorritako herrialdeetako hizkuntzari eta kulturari buruzko unibertsitateko irakasgaiak eskaini.	2009
Hizkuntza- eta kultura-harreraren esparrua				
3	1	31	Informazio bideak berrikusi, eta hizkuntza-politikoari eta egoera soziolinguistikoari buruzko informazioaren funtsezko ideiak zehaztu	2008
3	2	32	Katalanaren ikasketa sustatu, etorri berriak diren ikasleen artean: lehen mailetako matrikula diruz lagundu, eta kredituen aitortpena	2008
3	2	33	Etorri berriak diren ikasleen artean, gazteleraren ikasketa lagundu: matrikularen % 50 diruz lagundu (maila bat, urte akademiko bakoitzeko) eta kredituen aitortpena	2008
3	2	34	Tokiko kulturaren ezagutza eta esperimenezkoak sustatu, produktuen prestaketaren eta hedapenaren zein jardueren antolakuntzaren bidez (<i>80 pistes</i> gidak, unibertsitateko elkarrizketa-gidak, kultura- eta aisialdi jarduerak, etab.)	2008
3	2	35	Etorri berriak diren ikasleentzako, katalanaren eta gazteleraren ikasketa barne hartzen dituzten ikastaroen eskaintza esperimendatu	2010
3	3	36	Tokiko ikasleen eta gure unibertsitatean aldi baterako egongo direnen artean, kultura- eta hizkuntza-trukea bultzatu (boluntario linguistikoak, kultura- eta hizkuntza-harrerako jarduerak, etab.)	2008
3	3	37	Etxean nazioarteratzea bultzatzeko bideak ezarri, unibertsitateko komunitatean, pertsona nabarmenen presentzia aprobetxatuta	2009

Ikerkuntzaren esparrua				
4	1	38	Ingeles-katalan tandem indartuko duten laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu (adibidez, tesia katalanez idatziz gero, ingelesez argitara daitekeen tesiaren artikulua berrikusteko laguntza lortu ahal izatea)	2010
4	2	39	Ikerlana katalanez argitaratzeko laguntzen deialdia kontsideratu eta, behar izanez gero, aplikatu, bereziki, lurraldeari lotutako tokiko lana egiten den esparruetan	2010
4	2, 3	40	Doktore tesiak katalanez idazteko laguntza-deialdia jarraitu	2008
4	3	41	Argitalpenen berrikuspen linguistikorako laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu (adibidez, trabatzen ari diren irakasleentzat)	2010
4	4	42	Atzerriko hizkuntzetan, ikerlanak prestatzeko, idazteko eta komunikatzeko trebakuntza eskaini	2008
4	5	43	Hizkuntza ezberdinetan erreferentziazko materialak egiteko laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu	2010

Jarraian, jarduerak aurkezten dira, urteka taldekatuta.

2008. urtea

Espar.	Helb.	Jard. kopurua	Jarduera	Urtea
Orok.	-	-	Hizkuntzarekin zerikusia duten zerbitzuetarako laguntza-ildoen politika berriro zehaztu, bereziki itzulpenen kasuetan, laguntza-ildo horiek Planaren helburuak lortzen laguntzeko	2008
Erakunde eta kudeaketa-esparrua				
1	1	1	Erakundeen arteko kanpo komunikazioetan, erabilera instituzionaleko irizpideen dokumentua izan	2008
1	3	4	Dokumentuen kalitate maila erabakitzeke baremoa ezarri, hainbat elementutik abiatuta: inpaktua, instituzionalitate maila, urgentzia, etab.	2008
1	3	6	Erakundeetako testuen zuzenketa eta itzulpena lagundu	2008
1	4	7	Unibertsitatearen hizkuntza-politikari buruzko dibulgaziozko dokumentu publikoa izan, hizkuntza ezberdinetan (web orrian)	2008
1	4	8	Hizkuntza-politikako jarduerak zabaltu (intranetean, web orrian, mezu elektronikoetan), kanal sektorialetan eta Hizkuntza-planerako toki iraunkorren	2008
1	5	9	Zentroei zuzentarauak eman, informazioa jaso eta eman dezaten	2008
1	6	13	AZLentzako ingelesez emandako trebakuntza-programa ezarri	2008-2009
1	6	14	Irakasleentzako eta ikerleentzako ingelesez emandako trebakuntza-programa ezarri	2008-2009
1	6	15	Beste hizkuntzen ezagutza meritu bezala eta beste hizkuntza batzuetan trebatzeko programa ezarri	2008-2009
Irakaskuntzaren esparrua				
2	1	17	Ingelesezko irteera-maila zehaztu gradurako	2008-2009
2	2	19	Ikaslearen curriculumean, hizkuntza-gaitasunen aitorpena formalizatu	2008-2009

2	2	20	Diru-laguntza politika gorde, unibertsitateko komunitaterako katalanezko trebakuntza-eskaintzarako	2008
2	4	23	Gradurako katalanezko irakaskuntzaren etorkizuna zehaztu	2008-2009
2	5, 6	26	Edukiak eta hizkuntza integratuta, irakaskuntzan hirugarren hizkuntzak sartu nahi dituzten irakasleei trebakuntza eta laguntza-programak eskaini, eta ikasleen gaitasuna hainbat hizkuntzatan bultzatu	2008
2	6	29	Dokumentazio akademikoan eleaniztasuna errazteko, hizkuntza-teknologiako aplikazioen garapena eta erabilera sustatzea	2008
Hizkuntza- eta kultura-harreraren esparrua				
3	1	31	Informazio bideak berrikusi, eta hizkuntza-politikoari eta egoera soziolinguistikoari buruzko informazioaren funtsezko ideiak zehaztu	2008
3	2	32	Katalanaren ikasketa sustatu, etorri berriak diren ikasleen artean: lehen mailetako matrikula diruz lagundu, eta kredituen aitortpena	2008
3	2	33	Etorri berriak diren ikasleen artean, gaztelararen ikasketa lagundu: matrikularen % 50 diruz lagundu (maila bat, urte akademiko bakoitzeko) eta kredituen aitortpena	2008
3	2	34	Tokiko kulturaren ezagutza eta esperimendazioa sustatu, produktuen prestaketaren eta hedapenaren zein jardueren antolakuntzaren bidez (<i>80 pistes</i> gidak, unibertsitateko elkarrizketa-gidak, kultura- eta aisialdi jarduerak, etab.)	2008
3	3	36	Tokiko ikasleen eta gure unibertsitatean aldi baterako egongo direnen artean, kultura- eta hizkuntza-trukea bultzatu (boluntario linguistikoak, kultura- eta hizkuntza-harrerako jarduerak, etab.)	2008
Ikerkuntzaren esparrua				
4	2, 3	40	Doktore tesiak katalanez idazteko laguntza-deialdia jarraitu	2008
4	4	42	Atzerriko hizkuntzetan, ikerlanak prestatzeko, idazteko eta komunikatzeko trebakuntza eskaini	2008

2009. urtea

Erakunde eta kudeaketa-esparrua				
1	2	2	Unibertsitate komunitateko hizkuntzei buruzko ikerketa egin	2009
1	2	3	Erakundeen arteko barne komunikazioetan, erabilera instituzionaleko irizpideen dokumentua izan	2009
1	5	10	Eleaniztasunaren eskala jasoko duen eredia egin eta zabaldu	2009
1	6	11	Administrazioko eta zerbitzuetako langileen lantokiak linguistikoki zehaztu	2009
Irakaskuntzaren esparrua				
2	1	18	Masterretarako sarrerako ingeles maila eta gradurako katalan eta gaztelera maila ezarri behar den zehaztu	2009
2	3	21	Sartu berriak diren ikasleen artean, ingeles maila detektatzeko proben erabilera bultzatu eta, ahal izanez gero, baita gaztelarakoak eta katalanekoak ere	2009

2	3	22	Unibertsitateko ikasketak amaitzerakoan, hizkuntza horietan lortutako maila egiaztatzeko aukera emango duten ingeleseko eta, ahal izanez gero, beste hizkuntza batzuen ezagutzako proben erabilera bultzatu	2009
2	4	24	Zentroekin eta sailekin egindako plangintza-hitzarmenetan, etorkizun hori helburu bezala sartu	2009
2	4, 6	25	Gradu eta master ofizialen irakaskuntzan, hizkuntza-erabilerei buruzko ikerketa egin	2009
2	5, 6	27	Ikasgelan eleaniztasuna kudeatzeko irizpideak edo jarribideak dituen irakasleei zuzendutako gida egin	2009
2	7	30	Tokiko ikasleei zuzendutako etorritako herrialdeetako hizkuntzari eta kulturari buruzko unibertsitateko irakasgaiak eskaini.	2009
Hizkuntza- eta kultura-harreraren esparrua				
3	3	37	Etxean nazioarteratzea bultzatzeko bideak ezarri, unibertsitateko komunitatean, pertsona nabarmenen presentzia aprobetxatuta	2009

2010. urtea

Erakunde eta kudeaketa-esparrua				
1	3	5	UABn eta, bereziki, zentroetan ekoiztutako dokumentuen kalitatea bermatzeko aukera emango duen berrikuspen eta itzulpen sistema izan	2010
1	6	12	Ingeles maila ezarri, langileentzako baldintza orokor bezala	2010
1	6	16	Irakasleen hizkuntza-merituak aitortzeko aukerei buruzko txostena egin	2010
Irakaskuntzaren esparrua				
2	5, 6	28	Eleaniztasuna ikasgelan sartzten duten eta ikasleek askotariko hizkuntza-gaitasuna sustatzen duten irakasleentzako pizgarriak aztertzea eta aplikatzea	2010
Hizkuntza- eta kultura-harreraren esparrua				
3	2	35	Etorri berriak diren ikasleentzako, katalanaren eta gaztelararen ikasketa barne hartzen dituzten ikastaroen eskaintza espermentatu	2010
Ikerkuntzaren esparrua				
4	1	38	Ingeles-katalan tandem indartuko duten laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu (adibidez, tesia katalanez idatziz gero, ingelesez argitara daitekeen tesiaren artikulua berrikusteko laguntza lortu ahal izatea)	2010
4	2	39	Ikerlana katalanez argitaratzeko laguntzen deialdia kontsideratu eta, behar izanez gero, aplikatu, bereziki, lurraldeari lotutako tokiko lana egiten den esparruetan	2010
4	3	41	Argitalpenen berrikuspen linguistikorako laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu (adibidez, trabatzen ari diren irakasleentzat)	2010
4	5	43	Hizkuntza ezberdinetan erreferentziazko materialak egiteko laguntzen deialdia aztertu eta, behar izanez gero, aplikatu	2010

Jarduera bakoitzerako, ebaluazioa egiteko aukera emango duten adierazleak ezarriko dira.

4. Ebaluazioa eta jarraipena

Urtero, dagozkion emaitzen adierazleekin gauzatutako ekintzak biltzen dituen memoria egingo da, eta Hizkuntza Politikako Batzordeari aurkeztuko zaio, eztabaidatu eta, behar izanez gero, onartu dezaten.

2011rako 2008-2010 aldiko sintesi dokumentua egitea eta, hainbat eragilerekin (ikasleak, irakasleak, zentroak, etab.), ebaluazio kontsulta egitea aurreikusten da, lan ildoak berrikusteko eta, behar izanez gero, jardueretan aldaketak sartzeko.

5. Garapena eta laguntza teknikoa

Planean eskumen espezifikoak izango dituen errektoreak izendatutako irudia sortzea proposatu da.

Hizkuntza Zerbitzuak du Hizkuntza Planari laguntza teknikoa emateko ardura.

Planean aurreikusitako jarduerak garatzeko, koordinazio mekanismoak ezarriko dira UABko inplikaturako eremu nagusiekin: Gai Akademikoetarako Eremua, Nazioarteko Harremanetarako Eremua eta Komunikazio eta Sustapen Eremua.